



HEZKUNTZA SAILA  
Unibertsitate eta Ikerketa  
Sailburuordetza  
Unibertsitate Politika eta Koordinazioko  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN  
Viceconsejería de Universidades  
e Investigación  
Dirección de Política y Coordinación  
Universitaria

EBAZPENA, 2020ko irailaren 8koa, Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariarena; honen bidez, 2019-2020ko ikasturtean errendimendu handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beka-eskaeren ebazpena ematen du.

Hezkuntzako sailburuak, 2019ko uztailaren 2ko aginduaren bitartez (2019ko uztailaren 11ko EHAA), 2019-2020ko ikasturtean errendimendu handiko unibertsitate-ikasleak aintzatetsi eta saritzeko bikaintasun akademikoko beken deialdia egin zuen.

Hautaketa-batzordeak, 2020ko irailaren 3an, aurkeztutako bikaintasun akademikoko beken eskaeren ebazpen-proposamena aurkeztu egin dio Unibertsitate Politika eta Koordinazioko zuzendariari.

Horregatik, aipatutako Aginduan ezarritako gainerako prozedura-arauak beteta,

#### EBAZTEN DUT:

**Lehenengoa.-** Deialdiaren Aginduak ezarritako baldintzak betetzen dituzten eskatzaileei eta beka lortzeko behar den ordena-zenbakia dutenei beka ematea (I. Eranskina), guztira 120.000 €ko beka kopurua izanik.

**Bigarrena.-** Baldintzak betetzen ez dituztenei edo beka lortzeko behar den ordena-zenbakia ez duten eskatzaileei beka ukatzea (II. Eranskina).

**Hirugarrena.-** Interesdunek, gorako errekurtsua jarri ahal izango diote Unibertsitate eta Ikerketa sailburuordeari ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, jakinarazi eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 8a.

Miren Artaraz Miñón  
UNIBERTSITATE POLITIKA ETA KOORDINAZIOKO ZUZENDARIA